Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

306

AGINDUA, 2009ko azaroaren 16koa, Kulturako sailburuarena, Deban (Gipuzkoa) dagoen Linatzeta haitzuloko Arkeologi Gunea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2009ko uztailaren 6ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenaren bidez Deban (Gipuzkoa) dagoen Linatzeta haitzuloko Arkeologi Guneak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2009ko irailaren 27ko 142. zk.a duen EHAAn argitaratua izan zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Lege-izapide guztiak behar bezala bete ondoren, hainbat alegazio-idazkiri sarrera eman zaie. Alegazio horiek Canteras Deba SAko ordezkariak, Mutriku Natur Taldea ingurumena babesteko plataformak eta Francisco Javier Castro Montoyak aurkeztu dituzte. Hala, bada, horiek guztiak izapidetzea onartu da, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legean eta prozedura horri buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz.

Alegazio-idazkien edukia askotarikoa da. Canteras Deba SAk aurkeztutako alegazioetan, esaterako, gune arkeologikoaren kultur balioa ukatu da. Halaber, zalantzan jarri da aztarnategi hori Inbentario Orokorrean monumentu gisa sartzeko proposamenaren egokitasuna. Mutriku Natur Taldea ingurumena babesteko plataformak eta Francisco Javier Castro Montoyak aurkeztutakoetan, aldiz, adierazi da kobazuloari ez zaiola nahikoa garrantzi eman, kobazuloa ixteko legez kanpoko jarduerak egin direla eta behar-beharrezkoa

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

306

ORDEN de 16 de noviembre de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la zona arqueológica de la cueva Linatzeta sita en Deba (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la zona arqueológica de la cueva Linatzeta en Deba (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 6 de julio de 2009, publicada en BOPV n.º 142, de 27 de julio de 2009, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, se ha dado entrada a varios escritos de alegaciones, firmados por la representación de Canteras Deba, S.A., por la Plataforma de Defensa Medioambiental «Mutriku Natur Taldea» y por Francisco Javier Castro Montoya, admitiéndose todos ellos a trámite en base a la Ley 7/1990, del Patrimonio Cultural Vasco, y a la normativa en vigor sobre procedimiento.

Los escritos de alegaciones tienen contenido diverso. Así, las alegaciones de Canteras Deba, S.A. se centran en negar el valor cultural de la Zona Arqueológica y cuestionar la procedencia de incluir este yacimiento en el Inventario General con la categoría de Monumento. Por su parte, las alegaciones presentadas por la Plataforma de Defensa Medioambiental «Mutriku Natur Taldea» y por Francisco Javier Castro Montoya inciden en que no se le ha dado la debida importancia a la cueva, que se han llevado a cabo ac-

dela bai kobazuloa bai aztarnategia babestea. Horregatik guztiagatik, eskatu dute Linatzeta kobazuloa Inbentario Orokorrean sartu beharrean, hari buruzko kalifikazio-espedientea egin behar dela.

Aipatutako alegazioak aztertu, eta espedienteko txostenak oinarri hartuta, aintzat ez hartzea erabaki da. Dena den, haiei erantzun behar zaie.

Canteras Deba SAk aurkeztutako alegazioei dagokienez, adierazi behar dugu espedientean jasotako txosten eta azterlan tekniko ugaritan egiaztatu dela kobazuloak gure lurraldeko neolitizazio-prozesua (ehizan oinarritutako ekonomiatik ekoizpenean oinarritutako ekonomiara igarotzea) ulertzeko gako gisa duen garrantzia. Izan ere, datu horri buruzko datu gutxi aurkitu dira Euskadiko kostaldean, eta are gutxiago Gipuzkoan. Bestalde, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legeko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, kultura ondarea osatzen duten ondasunak hiru kategoria hauetako batean sailkatu behar dira: monumentua, monumentu-multzoa eta kultur gunea. Linatzeta kobazuloko gune arkeologikoa ez da kultura ondasunen multzo baten parte. Halaber, ondasun bakar gisa hartuta, haren balio arkeologikoak interes kulturala bermatzen duenez, monumentuaren izendapena eman behar zaio, 7/1990 Legean bertan xedatutakoa aplikatuta.

Mutriku Natur Taldea ingurumenaren aldeko plataformak eta Francisco Javier Castro Montoyak aurkeztutako alegazioei dagokienez, aipatu behar dugu aipatutako kobazuloa Inbentario Orokorrean sartzeko espedientea ireki izanak frogatu egiten duela gune arkeologiko horri garrantzia eta interes kulturala aitortu zaizkiola. Kultura Ondarea babestearen ikuspegitik begiratuta, Linatzeta kobazuloak kultura balioa du, aztarnategi arkeologikoa dagoelako bertan. Aztarnategia guztiz induskatzen amaitzen duten bitartean, kobazuloa babestu egin behar da, aztarnategi arkeologikoaren kokaleku den heinean. Modu horretan, aztarnategiaren egoera ona bermatu eta hura zaindu eta modu integralean aztertu ahal izango da. Kobazuloaren sailkapenari dagokionez, kontuan hartu behar da Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legean xedatutakoaren arabera, izendapen berezi hori garrantzi edo balio handiko kultura ondareei soilik aitortzen zaiela. Hau da, ondasun-kopuru mugatu batek du izendapen hori. Horren ildotik, kultura ondasunak eta, bereziki, ondasun arkeologikoak babesteko neurri orokorra Inbentarioan sartzea da. Hala, bada, orain arte Linatzetan egindako esku-hartzeetan bildutako datuen arabera, kobazuloari ezin zaio garrantzi edo berezitasun hori aitortu. Horregatik, ezin da esan gune arkeologikoak Legeak eskatzen duen berezitasuna duenik. Dena den, horrek ez du esan nahi aztarnategiak garrantzirik ez duenik. Azkenik, alegazioak aurkeztu dituztenen arabera egin omen diren legez kanpoko jarduerei dagokienez, adierazi behar dugu kontu horrek ez duela zerikusirik espediente honekin

tuaciones ilícitas de taponamiento de la cueva y que debe protegerse tanto la cueva como el yacimiento, por lo que solicitan que la cueva Linatzeta sea objeto de un expediente de Calificación, en vez de uno de inclusión en el Inventario General.

Valoradas dichas alegaciones, no se han tomado en consideración en base a los informes obrantes en el expediente, si bien procede darles contestación.

En respuesta a las alegaciones de Canteras S.A. cabe reseñar que diversos informes y estudios técnicos incorporados al expediente acreditan el valor arqueológico de la cueva como llave para entender el proceso de neolitización (paso de economías cazadoras a productoras) en nuestro entorno, periodo para el que apenas hay datos en el País Vasco marítimo, y aún menos en el territorio de Gipuzkoa. Por otro lado, el artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, en su apartado segundo, señala que los bienes que componen el Patrimonio Cultural deberán clasificarse en alguna de estas tres categorías: Monumento, Conjunto Monumental y Espacio Cultural. Toda vez que la zona arqueológica de la cueva de Linatzeta no forma parte de una agrupación de bienes culturales, y que, considerada de modo individual, el interés cultural queda acreditado por su valor arqueológico, no cabe otra categorización que la de Monumento en aplicación de la propia Ley 7/1990.

Respecto a las alegaciones planteadas por la Plataforma Mediambiental «Mutriku Natur Taldea» y por Francisco Javier Castro Montoya, se debe señalar que la incoación de este expediente de inclusión en el Inventario General es la prueba de la importancia otorgada a esta Zona Arqueológica y del reconocimiento al interés cultural que presenta. Desde el punto de vista de protección del patrimonio cultural, la cueva Linatzeta tiene valor cultural en cuanto que es receptora de un yacimiento arqueológico. En tanto la excavación total del yacimiento no se produzca, la cueva queda protegida como receptáculo del yacimiento arqueológico, para garantizar el mantenimiento y posibilitar la conservación y el estudio integral del mismo. Sobre la solicitud de su calificación, indicar que la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco reserva la calificación para bienes culturales de relevancia o singular valor, es decir, para un número limitado de bienes, siendo la inclusión en el Inventario la medida de protección de carácter general para los bienes culturales, y los arqueológicos en particular. En este sentido, los datos hasta ahora recogidos de las intervenciones realizadas en Linatzeta no la hacen merecedora de la citada relevancia o singularidad. Por ello, en lo referente a la Zona Arqueológica, no hay razones para aducir el requisito de singularidad exigido por la Ley, sin que ello reste un ápice de importancia a este yacimiento. Finalmente, cabe reseñar que las actuaciones ilícitas que a juicio de los alegantes se hayan podido llevar a cabo son cuestiones ajenas por completo al objeto de este expediente, y en todo caso, es

eta, edonola ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola gai horri buruzko erabakiak hartzeko eskumena.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Deban (Gipuzkoa) dagoen Linatzeta haitzuloko Arkeologi Gunea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Debako Udalari bere hirigintza-araudia arkeologi gune horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Debako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 16a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LAZARO.

la Diputación Foral de Gipuzkoa la competente para actuar en esta materia.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir la Zona Arqueológica de la cueva Linatzeta, sita en Deba (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Deba para que proceda a la protección de dicha zona arqueológica contemplándola en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, al Ayuntamiento de Deba, a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión del Bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 2009.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

MUGAK

A.– Mugaketaren deskribapena.

Aztarnategiaren mugaketa aztarnategi arkeologikoa duten guneen edukierek berek zehazten dute. Kanpoaldean, babes-eremua, 5 metrokoa litzateke egungo ahoko ertzetatik kontatzen hasita.

B.– Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa honen justifikazioa aztarnategia bera babesteko bistako beharra da. Horretaz gain, ahoaren inguruan 5 metro hartuko dira, haitzuloko ahoaren egitura eta sarrera bera babesteko.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

A.– Descripción de la delimitación.

La delimitación del yacimiento viene dada por la propia cavidad en las áreas con yacimiento arqueológico. En la zona exterior el área de protección vendría marcada por un área de cinco metros a contar desde los bordes más exteriores de la actual boca.

B.– Justificación de la delimitación.

Esta delimitación se justifica por la necesidad de proteger el yacimiento en sí mismo. Además de ello se establecen 5 metros alrededor de la boca al objeto de salvaguardar la estructura de la boca de la cueva y proteger la propia entrada de la cueva.


3 2 7 . 8 4
Aldapa
3
Erreka
Albitzuri
5 4 7 . 7 8
Ugarte Zarra
Linatzetako haitzuloa /
Cueva de Linatzeta
5 6 8 . 3 2
Deposito de Agua
Gi-3210
Altuna
Arkaitza
Erraillako Pur
ESKALA / ESCALA
120 60 0 120 Metros
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Linatzetako haitzuloaren arkeologia gunea /
Zona arqueológica de la cueva de Linatzeta
Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerria / Municipio: DEBA
Data / Fecha: 24/06/2009
Eskala / Escala: 1:5.000

II. ERANSKINA

AZALPENA

Ekialderantz dago irekita, H-I noranzkoa duen 8 metroko luzera duen arku-formako horman. Oso bertikala da, eta hari atxikita potentzia handiko hegal-higakin konoa dago. Haitzuloaren barrualdera sartzeko lau hanketan ibili behar da higakinean, M-rako noranzkoan. Berehala, ganga moduko galeria bihurtzen da, eta 25 bat metroz luzatzen da HHE-IIM noranzkoan.

Harrobiko pistako lanen ondorioz, aurrekoari atxikitako haitzulotxo bat bistaratu zen. Arku-forma duen hormaren H muturrean dago, eta aurrekoaren orientazio bera dauka. 1,2 x 1,2 metroko irekidura dauka, eta 3/4an beteta dago maila arkeologikoak dituen sedimentu-paketearekin.

Haitzulo biak egun dagoen sedimentazio-mailaren azpitik lotuta daude.

Egun ezin da ezer ikusi; izan ere, sarrera guztiz itxita dago, kontu handiz jarri dituzten harrobiko kareharrizko bloke batzuekin.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

Se abre al E en una pared en forma de arco de unos 8 metros de longitud en dirección S-N, de gran verticalidad y sobre la que se adosa un cono de derrubios de ladera de gran potencia. El acceso al interior de la cueva se realiza a gatas por una pequeña abertura sobre el derrubio en dirección W e, inmediatamente, se desarrolla en una galería de bóveda alta de unos 25 metros de longitud en dirección SSE-NNW.

A partir de los trabajos de la pista por la cantera se puso al descubierto un pequeño covacho anejo al anterior. Este se localiza en el extremo S de la pared, en forma de arco, con la misma orientación que la anterior, presenta una abertura visible de 1,2 x 1,2 metros, y se encuentra rellena en 3/4 partes por un paquete sedimentario que alberga niveles arqueológicos.

Ambas cuevas se conectan bajo el actual nivel de sedimentación.

Nada de esto es visible actualmente ya que la entrada se encuentra bloqueada totalmente por una serie de bloques calizos de la cantera cuidadosamente colocados.